

## Antonino Pagolaren errezeta sekretua



Lupulu-lore emea. Argi...

# Sagardoa eta garagardotarako lupulua nahasten direnean...



**IÑAKI SANZ-AZKUE**  
Argia aldizkarian argitaratua

Garagardoa egiteko erabiltzen den lupulua eta sagardoa nahastean ateratzen den zia da. Zaporea, freskotasuna eta nortasuna; hiruak omen ditu. Ameriketako Estatuak eta Kanadan arrakasta handiko edaria da, eta duela urtebete Galizian ere atera da bertako sagarra eta kanpoko lupuluarekin egina. Euskal Herrian, ordea, sagardo lupulari edari arrotza da. Oraingoz.

Ezezaguna izanagatik, baina, ezin esan dezakegu gurean sagardoa eta lupulua inoiz nahastu ez direnik. 1950eko hamarkadan, Hernaniko Orkolaga baserriko Antonino Pagolak bertako sagar eta lupulua nahasten zituen edari freskagarri hau egiteko. Antonino, ordea, joan zen; eta berarekin joan zen,aldi berean,

bere errezeta sekretua. Egungo garagardoa eta sagardogileek badute arrazoirik elkarrekin lanean jarri eta edari zahar hau edari berri bihurtzeko; sagardo lupuludunak bai baitu bere leku txikia gure sagardoaren historia luzean. Bestela, galdetu iezaiozue Orkolaga baserriko kupel zaharrari...

Antonino Pagolaren senideek badute pena bat: aitonak errezeta berarekin eraman izana, inori erakutsi gabe. Izan ere, aitona Antoninoren edaria berezia zen: «Oso freskagarria huen, eta apar

askorekin. Kupela baserri ondoko txabolari izaten zian, itzalean, eta han izaten huen sagardoa eta lupuluarekin egindako edari hura».

2017ko urtarrilean ARGIArako idatzituen Garagardotarako lupulua Euskal Herrian: Iragana edo etorkizuna? erreportajerako elkarrizketak egiten ari nintzela hasi zen guztia. Antonino Pagolaren bilobarekin (hau ere Antonino) adostu nuen hitzordua. Elkarrizketa hasi aurretik garbi laga zidan: «Errezetaren bila baldin bahator alferrik habil; aitonak berarekin

eraman zian». Segituan ordea, errezeta famatu luena. Guztia argitu zian baserrian, eta uda inguruan handia zenean ekarri zian sagardoa eta lupuluarekin edaria. Baratzean lanean eta etxekoentzat baino alderako prest egoten zian zerbizatzeko txarrea ondoko txabolara joan hartzen zian zuzenean.



